

Osasun-zientzietako Ikertzaileen II. Topaketak. Ikerketa-lanak aurkezteko prozedura.

Ikerketa-lana aurkezteko, lanaren laburpena bidali beharko da eta hobesten den aurkezpen-formatua (ahozkoa edo poster bidezkoa) adieraziko da. Batzorde zientifikoak onartu beharko du lana eta aurkezpen-formatua aukeratuko du.

Laburpena honela egituratu behar da:

- Lanaren/lerroaren izenburua
- Lerroko partaide edo lanaren egileen izen-abizenak (aurkezlearen izena azpimarratuz)
- Partaide bakoitzaren lantokia (saila/laborategia/zentroa)
- Ikerkuntza-lerroa edo lanaren laburpena [Letra: "Times 12"; Luzera: A4 bat baino gehiagorik ez; Lerroen arteko banaketa: bakuna]
- Hitz-gakoak (2 gutxienez)
- Formatua (ahozkoa / posterra)

Laburpenak bidaltzeko epea **2014ko apirilaren 30ean** bukatzen da.

Lana onartu den ala ez eta formatua maiatzaren hasieran jakinaraziko da.

Nora bidali: osasuna@ueu.org helbidera.

Ikerketa-lana aurkezteko ezinbestekoa da [topaketan matrikula](#) egitea.